

Txostena

Informe

**2023ko maiatzaren 28ko
Batzar Nagusietarako
Hauteskundeak.
Hauteskunde-kontabilitatea**

**Elecciones a Juntas Generales
28 de mayo de 2023.
Contabilidad Electoral**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. ONDORIOAK.....	9
III. DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA	10
IV. GOMENDIOAK	11
V. DIRULAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA	12
V.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENENKO DIRULAGUNTZA	12
V.2 GASTUEN GEHIENENKO MUGA	13
V.3 JASOTAKO AURRERAKINAK	14
VI. HAUTESKUNDEETAKO KONTUAK	15
VI.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA.....	16
VI.2 EUSKAL HERRIA BILDU.....	17
VI.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE).....	19
VI.4 ELKARREKIN PODEMOS-EZKER ANITZA/ IU-BERDEAK EQUO-ALIANZA VERDE	20
VI.5 ALDERDI POPULARRA	22
VI.6 VOX.....	23
ALEGAZIOAK	25
BOTO PARTIKULARRA	51



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	55
I. INTRODUCCIÓN	57
II. CONCLUSIONES	59
III. PROPUESTA DE SUBVENCIÓN.....	60
IV. RECOMENDACIONES	62
V. SUBVENCIONES Y LÍMITE DE GASTOS	63
V.1 RESULTADOS ELECTORALES Y SUBVENCIÓN MÁXIMA.....	63
V.2 LÍMITE MÁXIMO DE GASTOS.....	64
V.3 ADELANTOS RECIBIDOS.....	65
VI. CUENTAS ELECTORALES	66
VI.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA - PARTIDO NACIONALISTA VASCO	67
VI.2 EUSKAL HERRIA BILDU	68
VI.3 PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)	70
VI.4 ELKARREKIN PODEMOS-EZKER ANITZA/ IU-BERDEAK EQUO-ALIANZA VERDE	71
VI.5 PARTIDO POPULAR	73
VI.6 VOX.....	74
ALEGACIONES	75
VOTO PARTICULAR	101

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 30a
Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2023



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AFA	Arabako Foru Aldundia.
APEKP	Alderdi Politikoei Egokitutako Kontabilitate Plana eta martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoari, alderdi politikoen ekonomia eta finantza jardueraren kontrolari buruzkoa, Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 28an onartutakoa.
APFLO	8/2007 Lege Organikoa, uztailaren 4koa, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BNHL	Martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeei buruzkoa.
BOE	Boletín Oficial del Estado.
Elkarrekin Podemos	Podemos-Ahal dugu/Ezker Anitza-Izquierda Unida/EQUO berdeak.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
HAOLO	5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoa.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
KtuE	Kontuen Epaitegia.
KtuE instrukzioa	Kontuen Epaitegiaren instrukzioa, 2023ko maiatzaren 28ko toki-hauteskundeen eta hauteskunde autonomikoen kontabilitateak fiskalizatzeari buruzkoa.
LH	Lurralde Historikoa.





I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako 2023ko maiatzaren 28an egindako azken hauteskundeetan jarlekua eskuratu zuten talde politikoen sarrera eta gastuen kontabilitatea aztertu du.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek egiaztatzea izan du helburu:

1. Kontabilitatea aurreikusitako epean aurkeztu da eta kontabilitate planeko printzipio nagusiak betetzen ditu (HAOLOren 133.1 eta 121.2 artikulua).
2. Alderdi politikoen justifikatutako kobrantza eta ordainketa guztiak Hauteskunde Batzordeari jakinarazitako kontu korronteen bitartez egin dira jasotako zehaztapenen arabera (HAOLOren 124 eta 125.1 artikulua).
3. Pertsona fisikoen ekarpenak egoki identifikatuta daude (HAOLOren 126. artikulua) eta dagozkion mugak betetzen dituzte (HAOLOren 129. artikulua).
4. Hauteskunde-kontu korronteetara ondoko erakunde hauetatik funtsak ekartzeko debekua errespetatu da: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (HAOLOren 128.1 artikulua).
5. Foru aldundiek alderdi politikoei emandako aurrerakinen zenbatekoak gehiengo mugak betetzen ditu (HAOLOren 127 bis artikulua).
6. Egindako gastuak arautegiak zehaztutako kontzepturen bati dagozkio, hauteskundeak deitu eta hautetsien izendapena gauzatu bitarteko aldian egin dira, euskarrituak daude, eta kontularitza, merkataritza eta fiskalaritzako printzipio eta arauak agintzen dituzten gutxieneko betekizunak gordetzen dituzte (HAOLOren 130. artikulua).
7. Gastu guztiak bozketa egin eta ondorengo 90 egunetan ordaindu dituzte (HAOLOren 125.3 artikulua).
8. Gastuen gehieneko mugak gorde dira (HAOLOren 131.1 eta 58. artikulua).

Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- Martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeei buruzkoa (BNHL).
- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzkoa (HAOLO).
- 8/2007 Lege Organikoa, uztailaren 4koa, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa (APFLO).
- Arabako Diputatu Nagusiaren 76/2023 Foru Dekretua, apirilaren 3koa, Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituenak.



- Bizkaiko Diputatu Nagusiaren 59/2023 Foru Dekretua, apirilaren 3koa, Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituen.
- 2/2023 Foru Dekretua, apirilaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituen.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 329/2023 Agindua, apirilaren 4koa, 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako hauteskunde-jarduerak eragindako gastuetarako dirulaguntzen zenbatekoak finkatzen dituen.
- Agindua, 2020ko maiatzaren 20koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzei buruzkoa.
- 11/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkaritza eskuratu zuten eta 2023ko Batzar Nagusietarako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei hauteskunde gastuetarako aurrerakinak ematen dizkiena.
- 39/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena, hauteskunde gastuengatik dirulaguntza eta aurrerakinen erregimena onartzen duena, 2023an Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan eskuratutako emaitzen arabera.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 28ko 32/2023 Foru Dekretua, hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen emakida arautzen duena, 2023ko maiatzaren 28ko Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei dagokiena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren apirilaren 19ko 753/2023 Foru Agindua, 2023ko Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan lehiatu diren alderdi politiko, federazio edo koalizioei dirulaguntzak emateari buruzkoa.

Hona hemen 2023ko maiatzaren 28ko Lurralde Historikoen Batzar Nagusietarako hauteskundeetan kandidaturak aurkeztu eta ordezkaritza eskuratu duten alderdi politikoak:

Alderdi politikoa	Siglak
Euzko Alderdi Jeltzalea	EAJ-PNV
Euskal Herria Bildu.....	EH Bildu
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE)	PSE-EE(PSOE)
Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza-Izquierda Unida-EQUO berdeak	
Alderdi Popularra.....	PP
Vox	VOX



II. ONDORIOAK

1. Udal-hauteskundearen eta alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik; hori dela eta, Batzar Nagusietarako hauteskunde hauei dagozkien gastuak alderdien kontabilitatean barne hartu izana ez du HKEEk egiaztatu, eta horrek gastuaren legezkotasunak mugak gainditzea eragin dezake.
2. HKEEk ez du aztertu aurkeztutako kontabilitateez beste edota Hauteskunde Batzorde Probintzialei jakinarazitako hauteskunde-kontu korronteez beste erregistratutako balizko ordainketarik eta kobrantzarik dagoen.
3. 2023ko azaroaren 15ean aurkeztutako alegazioetan, EH Bilduk dio 2023ko irailean aurkeztutako hauteskunde kontabilitateak, guztira 132.836,64 euro, Batzar Nagusietarako hauteskundeei ez dagozkien gastuak jasotzen dituela, eta batez ere udal eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei dagozkiela.

Gastu horien fakturretan berariaz adierazten da Batzar Nagusietarako hauteskundeei dagozkiela, eta Probintziako Hauteskunde Batzordei jakinarazitako hauteskunde-kontu korronteen bidez ordaindu direla. Gainera, 10.000 euroren gainetiko hauteskunde-gastuak fakturatu dituzten enpresek (132.836,64 euroetatik 110.756,28 euro), HAOLoren 133.5 artikulua betez, HKEEri bidalitako baieztapenean adierazi dute Batzar Nagusietarako hauteskundeei dagozkiela. Alegazioetan aurkeztutako justifikazio-dokumentazioak ezin du egiaztatu gastu horiek Batzar Nagusietarako hauteskundeei ez dagozkienik.

Alegazioek hauteskunde-gastu guztien % 15i eragiten diote, eta agerian uzten dute EH Bilduk ezarritako barne-kontrolerako sistemak ez duela bermatzen kontabilitateko informazioaren fidagarritasuna eta osotasuna. Honenbestez, ezin eskuratu izan dugu auditoretzako ebidentziarik, EH Bilduk 2023ko irailean aurkeztutako hauteskunde-kontabilitatea indarreko kontabilitate-planean jasotako printzipio orokorrekin bat ote datorren adierazteko oinarri nahikoa eta egokia ematen duenik, HAOLoren 121. artikulua ezartzen duen moduan.

4. EH Bilduk 2023ko irailean-aurkeztutako hauteskunde-kontabilitatean erregistratutako hauteskunde-gastuek eta prentsa eta irratiko gastuek bete egiten dituzte hauteskunde-gastutzat jotzeko ezarritako baldintzak (ikus VI.2) gastu horiek 877.044,93 eta 160.012,06 euro dira, hurrenez hurren. Zenbateko horiek gastuen guztizko mugak eta prentsa eta irratia mugak gainditzen dituzte (ikus V.2) 693.802,47 eta 138.760,50 euro, hurrenez hurren.

Aurreko 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan azaldutako auzien eta 4. paragrafoan adierazitakoaren balizko eraginagatik izan ezik, 2023ko maiatzaren 28ko Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztutako alderdi politiko guztiek zuzentasunez bete dute hauteskunde-gastuen eta finantzaketaren arloan indarrean dagoen legeria, eta HKEEk fiskalizatzeko hauteskunde-kontabilitatearen legeak ezarritako epearen barruan aurkeztu dute.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. DIRULAGUNTZA-PROPOSAMENA

Hauteskunde-gastuen dirulaguntza lurralde historiko bakoitzaren aurrekontuen kargura egiten da, Batzar Nagusietako Hauteskundearen Legearen 11. artikuluari jarraiki. Dirulaguntza ez da inola ere justifikatutako gastuak baino handiagoa izango, eta horiek ere ezingo dute gastuen gehieneko muga gainditu. Horren arabera, hauteskunde kontabilitatea aurkeztu den datan dirulaguntzen hauteskunde aurreko aurrerapena soilik jaso dela aintzat hartuta, alderdi politiko, federazio eta koalizio bakoitzak jasotzeko duen dirulaguntza honako hau da:

ARABAKO LH Euroak

Hautagaitza	Gehieneko dirulaguntza	Hauteskunde- gastu subentzizonag.	Dirulaguntza ezargarria	Hautes.aurreko aurrerakina	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	188.408,58	128.526,90	128.526,90	33.883,01	94.643,89
EH BILDU	176.552,42	172.307,56	172.307,56	40.535,91	131.771,65
PSE-EE (PSOE)	113.143,86	184.646,91	113.143,86	36.730,96	76.412,90
ELKARREKIN PODEMOS	37.916,94	61.526,06	37.916,94	14.927,41	22.989,53
PP	113.605,02	203.718,85	113.605,02	29.453,55	84.151,47
VOX.....	13.607,38	-	-	-	-
GUZTIRA	643.234,20	750.726,28	565.500,28	155.530,84	409.969,44

BIZKAIKO LH Euroak

Hautagaitza	Gehieneko dirulaguntza	Hauteskunde- gastu subentzizonag.	Dirulaguntza ezargarria	Hautes.aurreko aurrerakina	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	367.503,26	339.722,35	339.722,35	98.357,32	241.365,03
EH BILDU	239.432,10	224.263,58	224.263,58	49.905,10	174.358,48
PSE-EE (PSOE)	135.120,32	257.830,22	135.120,32	41.511,05	93.609,27
ELKARREKIN PODEMOS	34.958,90	163.848,34	34.958,90	29.382,23	5.576,67
PP	50.392,02	56.324,36	50.392,02	10.694,47	39.697,55
GUZTIRA	827.406,60	1.041.988,85	784.457,17	229.850,17	554.607,00

GIPUZKOAKO LH Euroak

Hautagaitza	Gehieneko dirulaguntza	Hauteskunde- gastu subentzizonag.	Dirulaguntza ezargarria	Hautes.aurreko aurrerakina	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	246.936,32	211.640,54	211.640,54	70.601,69	141.038,85
EH BILDU	310.990,18	297.231,33	297.231,33	73.412,68	223.818,65
PSE-EE (PSOE)	106.090,54	215.557,94	106.090,54	39.077,59	67.012,95
ELKARREKIN PODEMOS	29.913,14	118.980,88	29.913,14	17.406,82	12.506,32
PP	42.934,08	43.066,52	42.934,08	4.775,86	38.158,22
GUZTIRA	736.864,26	886.477,21	687.809,63	205.274,64	482.534,99

Gehieneko dirulaguntzaren kalkulua V.1 atalean dago zehaztua; hauteskunde-gastu subentzionagarriak, VI. Atalean, eta jasotako aurrerakinak txosten honetako V.3 atalean.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. GOMENDIOAK

1. BNHLk artikulua bakar bat dauka hauteskunde-gastuen finantzaketa publikoari dagokionez, eta horrek soil-soilik ordezkaritza eskuratu duten alderdi politikoek jaso behar duten dirulaguntza zehazten du.

Behar besteko erregulaziorik ez dagoenez, HAOLOrako jo behar da ordezeko arau gisa, hauteskunde hauek udal-hauteskundeekin parekatuz, Hauteskunde batzorde Nagusiak emandako interpretazioaren arabera.

Ondorioz, BNHL osatu egin beharko litzateke, honako alderdi hauek barne hartuta:

- Berariaz agintzea Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari Hauteskundeetan esku hartu duten alderdi politikoek hauteskunde-kontabilitateen fiskalizazioa egiteko.
 - Alderdi politiko parte hartzaileek egin ditzaketen hauteskunde-gastuei ezargarriak zaizkien mugak.
 - Udal hauteskundeetako eta Batzar Nagusietako gastu komunak gastuak banatzeko mekanismoak, beti batera gauzatzen diren prozesuak baitira.
 - Kontuak lurralde historikoen arabera bereizita aurkezteko baldintzak eta, hala badagokio, gastu komunak egozteko irizpideak.
2. Alderdi politikoek aurkeztutako fakturen argi eta garbi jaso behar dituzte:
 - Gastua noiz egin den eta zer kontzepturengatik egin den. Zerbitzua emateko edo materialak hornitzeko data bestelakoa bada, fakturan data hori adierazi behar da.
 - Hauteskunde-prozesu bat baino gehiago egonez gero, zein hauteskunde-prozesuri dagokion xehekatu, eta eragindako lurralde historikoa(k).
 3. Alderdi politikoek hornitzaileei gogorarazi behar die hauteskunde-gastuengatik 10.000 eurotik gora fakturatu badute, araudiak ezarritako epean HKEEri jakinarazteko betebeharra dutela.
 4. Alderdi politiko batek hauteskunde-gastuengatik ordainketak egin ditu bozketa egin eta hurrengo laurogeita hamar egunak igaro ostean (ikus VI.2).



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. DIRULAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAK

V.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENEN DIRULAGUNTZA

Hona hemen eskualdeko hauteskunde batzordeek batzarkideak izendatzeko egindako akten arabera, alderdi politiko bakoitzak eskuratu dituen emaitzak lurralde historikoen arabera bereizita:

Hautagaitza	Arabako LH		Bizkaiko LH		Gipuzkoako LH	
	Botoak	Batzarkideak	Botoak	Batzarkideak	Botoak	Batzarkideak
EAJ-PNV	38.467	15	204.557	23	105.460	17
EH BILDU	37.207	14	132.955	15	120.599	22
PSE-EE (PSOE)	27.506	9	84.656	8	51.593	7
ELKARREKIN PODEMOS	10.349	3	38.756	2	21.283	2
PP	25.223	9	43.893	3	20.582	3
VOX	4.503	1	10.636	-	-	-
BESTE BATZUK	2.817	-	6.935	-	3.636	-
GUZTIRA	146.072	51	522.388	51	323.153	51

Boto hauetatik dirulaguntza jasotzeko eskubidea soilik ematen dute gutxienez ordezkari bat eskuratu duten barrutietako botoek. Arau honi jarraikiz, Batzar Nagusietan ordezkariak eskuratu dituzten alderdi politikoei dagozkien ondoko boto hauek ez dira gogoan hartu ezargariak diren gehieneko dirulaguntzen kalkuluan:

Hautagaitza	Arabako LH	Bizkaiko LH	Gipuzkoako LH
PSE-EE (PSOE)	4.243	-	-
ELKARREKIN PODEMOS	2.220	15.409	7.280
PP	1.106	12.662	3.162

Batzar Nagusietako Hauteskundeei buruzko Legearen 11. artikulua aintzat hartuta, alderdi politiko bakoitzak eskura dezakeen gehieneko dirulaguntza boto bakoitzeko 0,54 euro da eta Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako eserleku bakoitzerako finkatutako zenbatekoaren % 40; dirulaguntza hori batzarkide bakoitzeko 27.939,41 euro da, Ogasun eta Finantzen Sailburuaren 2020ko maiatzaren 20ko Aginduaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzeari buruzkoa.

	Euroak		
Alderdi politikoa	Arabako LH	Bizkaiko LH	Gipuzkoako LH
EAJ-PNV	188.408,58	367.503,26	246.936,32
EH BILDU	176.552,42	239.432,10	310.990,18
PSE-EE (PSOE)	113.143,86	135.120,32	106.090,54
ELKARREKIN PODEMOS	37.916,94	34.958,90	29.913,14
PP	113.605,02	50.392,02	42.934,08
VOX	13.607,38	-	-
GUZTIRA	643.234,20	827.406,60	736.864,26

V.2 GASTUEN GEHIENeko MUGA

Batzar Nagusietako Hauteskunde Legeak ez du mugarik ezartzen hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi politikoek hauteskundeetan egin ditzaketen gastuei dagokienez.

Alabaina, HAOLok 131. artikulua ezartzen du hauteskunde guztietan muga bat dagoela, eta muga bateratu bat bi hauteskunde edo gehiago batera egokituz gero.

131.1 artikulua ezartzen duen mugari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2007ko urriaren 25eko erabakiak agintzen du hauteskunde-gastuen muga bakarra eta bateratua dela hiru lurraldeetarako, hauteskunde-prozesuak duen batasun izaeraren ondorioz.

131.2 artikulua baterako mugari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2019ko otsailaren 18ko Jarraibideak agintzen du muga hau ez zaiela ezargarria lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeei, modu bereizian arautuak baitaude eta organo ezberdinek fiskalizatzen baitituzte.

Aurrekoaren ondorioz eta HAOLoren 193.2 artikuluan agindutakoari jarraikiz, alderdi politikoek egin dezaketen gastua, 2023ko maiatzaren 28ko toki-hauteskundeetarako hauteskunde-jarduerak eragindako gastuetarako dirulaguntzen zenbatekoak finkatzen dituen Ogasun Ministerioaren apirilaren 4ko 329/2023 Aginduak eguneratutako zenbatekoen arabera, 0,11 eurokoa izango da biztanle bakoitzeko, gehi 150.301,11 euroren kopuru finko bat Lurralde Historikoko barrutietatik erdietan baino gehiagotan aurkeztuz gero; horretarako, onartutako azken errolda hartuko da kontuan, 2022ko urtarrilaren 1ekoa, alegia. Horrez gain, alderdi politikoek gehieneko muga horren % 20 baizik ez dezakete gastatu prentsa-irratietako publizitatean (58. artikulua).

Hauteskunde hauei aplikagarriak zaizkien mugak honako hauek dira: 693.802,47 euro guztizko gastuetarako, eta 138.760,50 euro prentsa-irratietarako.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen alderdi politiko bakoitzak egindako hauteskunde-gastuak guztira:

Alderdi politikoa	Euroak					
	Guztizko gast. muga	Hautes. gast. guztira	Soberak. /Defizita	Prentsa-irratietarako muga	Prentsa-irrat. gastua guztira	Soberak. /Defizita
EAJ-PNV.....	693.802,47	679.889,79	(13.912,68)	138.760,50	112.015,98	(26.744,52)
EH BILDU	693.802,47	877.044,93	183.242,46	138.760,50	160.012,06	21.251,56
PSE-EE (PSOE)	693.802,47	658.035,07	(35.767,40)	138.760,50	124.441,06	(14.319,44)
ELKARREKIN PODEMOS	693.802,47	344.355,28	(349.447,19)	138.760,50	9.683,63	(129.076,87)
PP	693.802,47	303.109,73	(390.692,74)	138.760,50	90.058,22	(48.702,28)
VOX.....	693.802,47	-	-	138.760,50	-	-

EH Bilduk gastuen gehieneko muga eta prentsa-irratietako gastuetarako muga gainditu du.

V.3 JASOTAKO AURRERAKINAK

Alderdi politikoek Batzar Nagusietarako aurreko hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren % 30eko aurrerakina eskatzeko eskubidea dute. Aurrerakin hori emateko aurretik eskaera egin behar da hauteskundearen deialdia egin osteko hogeita batgarren eta hogeita hirugarren egunen artean, hau da, 2023ko apirilaren 25 eta 27 bitartean.

Hauteskundeak egin ondoren hauteskundearen emaitzen arabera legokiekeen dirulaguntzaren % 90 arteko beste aurrerakin bat eska dezakete; horretarako, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu beharko diote; baita guztira jasotako dirulaguntzaren %10eko abala entregatu ere.

Alderdi politikoei emandako hauteskunde aurreko aurrerakinak Aldundi bakoitzak emandako informazioaren arabera honako hauek izan dira:

AURRERAKINA			Euroak
Alderdi politikoa	AFA	BFA	GFA
EAJ-PNV	33.883,01	98.357,32	70.601,69
EH BILDU	40.535,91	49.905,10	73.412,68
PSE-EE (PSOE)	36.730,96	41.511,05	39.077,59
ELKARREKIN PODEMOS	14.927,41	29.382,23	17.406,82
PP	29.453,55	10.694,47	4.775,86
GUZTIRA	155.530,84	229.850,17	205.274,64



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI. HAUTESKUNDEETAKO KONTUAK

Ondotik, Epaitegi honek aztertu dituen alderdi politiko bakoitzari dagozkion kontuak aurkeztuko ditugu.

Txosten honetako tauletan baliabide modura barne hartu dira alderdi politikoetatik jasotako ekarpenak, APEKPren arabera hartzekodunetan erregistratu behar direnak; dirulaguntzek eragindako sarrerak, berriz, APEKPren arabera emaitzen kontuan kontabilizatu behar dira emandako zenbatekoarekin, kasu honetan lehenengo aurrerakinarekin.

Hauteskundeetakoak ez diren gastuak aparteko kontzeptuan jaso dira eta dagozkion kontuen ondotik zerrendatu.

HKEEk birsailkatu egin ditu mugak dituzten kontu-sailtakoak diren gastuak.

Epaitegi honetan kontuak aurkeztu dituzteneko datak, hau da, alderdi politiko, federazio edo hauteskunde-koalizio bakoitzaren kontabilitatean barne hartutako eragiketei dagozkienak, honako hauek dira:

Alderdi, federazio edo koalizio politikoa	DATA
Euzko Alderdi Jeltzalea	2023/09/28
Euskal Herria Bildu -Araba	2023/09/21
Euskal Herria Bildu -Bizkaia	2023/09/21
Euskal Herria Bildu - Gipuzkoa	2023/09/22
Euskadiko Alderdi Sozialista – Euskadiko Ezkerra (PSOE) - Araba	2023/09/26
Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra (PSOE) - Bizkaia	2023/09/27
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) - Gipuzkoa	2023/09/28
Elkarrekin Podemos - Araba	2023/09/29
Elkarrekin Podemos - Bizkaia	2023/09/29
Elkarrekin Podemos - Gipuzkoa	2023/09/29
Alderdi Popularra - Araba	2023/09/19
Alderdi Popularra - Bizkaia	2023/09/19
Alderdi Popularra - Gipuzkoa	2023/09/19
VOX	2023/10/05



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA

EAJ-PNV alderdiak hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan.

Kontabilitatea modu bateratuan aurkezten da, eta ondoren lurralde historiko bakoitzari dagokiona bereizten da.

Euroak			
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	587,15	Dirulaguntzaren aurrerakina	202.842,02
Zerbitzu profesional independenteak	3.593,93	Alderdiaren ekarpena	490.000,00
Publizitatea prentsa-irratian	112.015,98		
Kanpoko publizitatea	109.846,05		
Bestelako propaganda eta publizitatea	166.117,38		
Beste zerbitzu batzuk	18.387,17		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak	269.342,13		
HAUTESKUNDE-GASTUAK GUZTIRA	679.889,79	BALIABIDEAK GUZTIRA	692.842,02
Gastu ez-hauteskundeetakoak	1.300,75		
GASTUAK, GUZTIRA	681.190,54	BALIABIDEAK GUZTIRA	692.842,02
Diruzaintza	11.651,48		
GUZTIRA	692.842,02	GUZTIRA	692.842,02

“Zerbitzu profesional independenteengatik” 1.300,75 euro murriztu dira hauteskunde gastuetatik, udal hauteskundeetako gastua baita.

Alderdi politikoak lurralde historikoen arabera egin du gastu banaketa eta horretarako, lurralde bakoitzari zegozkion gastu propioak egotzi dizkio eta guztiei zegozkien datuak, berriz, kasu batzuetan hautesle kopuruaren arabera banatu ditu eta beste batzuetan, inguruabar soziopolitikoen ondorioz baliatutako komunikazio-estrategien arabera. Hauteskundeetako gastuen banaketa honakoa da:

Euroak	
Lurralde historikoa	Zenbatekoa
Araba	128.526,90
Bizkaia	339.722,35
Gipuzkoa	211.640,54
GUZTIRA	679.889,79



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI.2 EUSKAL HERRIA BILDU

EH Bildu hiru Lurralde Historikoetan aurkeztu da, hauteskunde-barruti guztietan eta lurralde bakoitzeko kontabilitate bereizia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	65.806,89	Dirulaguntzaren aurrerakina	40.535,91
Publizitatea prentsa-irratian	47.201,63	Federazioaren ekarpena	171.200,00
Kanpoko publizitatea	11.737,00		
Bestelako propaganda eta publizitatea	75.994,70		
Beste zerbitzu batzuk	8.819,21		
HAUTESKUNDE-GASTUAK GUZTIRA	209.559,43	BALIABIDEAK GUZTIRA	211.735,91
Gastu ez-hauteskundeetakoak	1.978,95		
GASTUAK, GUZTIRA	211.538,38	BALIABIDEAK GUZTIRA	211.735,91
Diruzaintza	197,53		
GUZTIRA	211.735,91	GUZTIRA	211.735,91

“Bestelako propaganda eta publizitatea” kontutik 1.978,95 gastu murriztu dira hauteskunde gastuetatik, udal hauteskundeetako gastua baita.

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	61.268,65	Dirulaguntzaren aurrerakina	49.905,10
Banku zerbitzuak eta antzekoak	10,00	Federazioaren ekarpena	295.000,00
Publizitatea prentsa-irratian	29.411,77		
Kanpoko publizitatea	1.524,60		
Bestelako propaganda eta publizitatea	238.238,93		
Beste zerbitzu batzuk	2.410,93		
HAUTESKUNDE-GASTUAK GUZTIRA	332.864,88	BALIABIDEAK GUZTIRA	344.905,10
Gastu ez-hauteskundeetakoak	11.192,50		
GASTUAK, GUZTIRA	344.057,38	BALIABIDEAK GUZTIRA	344.905,10
Diruzaintza	497,14		
Administrazio publikoetako zordunak	350,58		
GUZTIRA	344.905,10	GUZTIRA	344.905,10

Aholkularitza estrategikoari dagozkion “Beste zerbitzu batzuetatik” 11.192,50 euro deskontatu dira, KtuE instrukzioaren arabera HAOLoren 130. artikuluko kontzeptuetan sartzen ez direnak.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	71.238,61	Dirulaguntzaren aurrerakina	73.412,68
Publizitatea prentsa-irratian	83.398,66	Federazioaren ekarpena	280.000,00
Kanpoko publizitatea	3.079,45		
Bestelako propaganda eta publizitatea	150.835,82		
Beste zerbitzu batzuk	26.068,08		
HAUTESKUNDE-GASTUAK GUZTIRA	334.620,62	BALIABIDEAK GUZTIRA	353.412,68
Gastu ez-hauteskundeetakoak	15.826,80		
GASTUAK, GUZTIRA	350.447,42	BALIABIDEAK GUZTIRA	353.412,68
Diruzaintza	2.965,26		
GUZTIRA	353.412,68	GUZTIRA	353.412,68

Aholkularitza estrategikoari dagozkion “Beste zerbitzu batzuetatik” 15.826,80 euro deskontatu dira, KtuE instrukzioaren arabera HAOLoren 130. artikuluko kontzeptuetan sartzen ez direnak.

6.174,36 euroren ordainketak egin zaizkie hirugarrenei, HAOLoren 125.3 artikuluan ezarritako laurogeita hamar eguneko epea gaindituta.

EH Bilduk gastuen gehieneko muga gainditu duenez gero, hauteskunde-gastuak murriztu egin behar dira eta honako hauek izango dira hauteskunde-gastu subentzionagarriak:

					Euroak
Hautagaitza	Gehieneko dirulaguntza	Muga	Hauteskund. gastuak	Gehiegizko gastua(*)	Hauteskunde gastu subentzionagarria
ARABAKO LH.....	176.552,42		209.559,43	37.251,87	172.307,56
BIZKAIKO LH.....	239.432,10		332.864,88	108.601,30	224.263,58
GIPUZKOAKO LH	310.990,18		334.620,62	37.389,29	297.231,33
GUZTIRA	726.974,70	693.802,47	877.044,93	183.242,46	693.802,47

(*) Guztira egindako gehiegizko gastuaren banaketa lurralde historiko bakoitzean eskuratutako botoen arabera gauzatu da.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

PSE-EE(PSOE) alderdiak hiru lurralde historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan, eta lurralde bakoitzeko kontabilitate bereizia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	9.236,76	Dirulaguntzaren aurrerakina	36.730,96
Errentamenduak	3.290,72	Alderdiaren ekarpena	147.915,95
Publizitatea prentsa-irratian	35.496,56		
Kanpoko publizitatea	36.267,33		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	69.258,39		
Beste zerbitzu batzuk.....	31.097,15		
GASTUAK, GUZTIRA	184.646,91	BALIABIDEAK GUZTIRA	184.646,91

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Publizitatea prentsa-irratian	52.231,47	Dirulaguntzaren aurrerakina	41.511,05
Kanpoko publizitatea.....	52.351,17	Alderdiaren ekarpena	216.319,17
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	141.469,33		
Beste zerbitzu batzuk.....	11.778,25		
GASTUAK, GUZTIRA	257.830,22	BALIABIDEAK GUZTIRA	257.830,22

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	5.792,82	Dirulaguntzaren aurrerakina	39.077,59
Publizitatea prentsa-irratian	36.713,03	Alderdiaren ekarpena	176.480,35
Kanpoko publizitatea.....	12.100,00		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	69.468,49		
Beste zerbitzu batzuk.....	64.016,26		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak	27.467,34		
GASTUAK, GUZTIRA	215.557,94	BALIABIDEAK GUZTIRA	215.577,94



VI.4 ELKARREKIN PODEMOS-EZKER ANITZA/IU-BERDEAK EQUO-ALIANZA VERDE

Alderdi politiko hau hiru lurralde historikoetan aurkeztu da, hauteskunde-barruti guztietan eta lurralde bakoitzeko kontabilitate bereizia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	2.638,46	Dirulaguntzaren aurrerakina	14.927,41
Profesional independenteen zerbitzuak	15.315,36	Koalizioaren ekarpena	48.569,74
Aseguru primak	366,67		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	17,94		
Publizitatea prentsa-irratian	1.624,62		
Kanpoko publizitatea	5.701,70		
Bestelako propaganda eta publizitatea	9.122,38		
Beste zerbitzu batzuk	5.148,66		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak	21.590,27		
GASTUAK, GUZTIRA	61.526,06	BALIABIDEAK GUZTIRA	63.497,15
Diruzaintza	1.971,09		
GUZTIRA	63.497,15	GUZTIRA	63.497,15

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak	1.638,91	Dirulaguntzaren aurrerakina	29.382,23
Errentamenduak	4.516,82	Koalizioaren ekarpena	140.227,45
Profesional independenteen zerbitzuak	29.150,61		
Aseguru-primak	366,66		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	61,07		
Publizitatea prentsa-irratian	4.165,63		
Kanpoko publizitatea	17.548,81		
Bestelako propaganda eta publizitatea	14.700,36		
Beste zerbitzu batzuk	12.250,46		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak	79.449,01		
GASTUAK, GUZTIRA	163.848,34	BALIABIDEAK GUZTIRA	169.609,68
Diruzaintza	5.761,34		
GUZTIRA	169.609,68	GUZTIRA	169.609,68



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	9.401,39	Dirulaguntzaren aurrerakina	17.406,82
Errentamenduak	9.248,18	Koalizioaren ekarpena	105.922,12
Profesional independenteen zerbitzuak	21.585,60		
Aseguru-primak	366,66		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	19,50		
Publizitatea prentsa-irratian	3.893,38		
Kanpoko publizitatea	7.674,79		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	10.906,21		
Beste zerbitzu batzuk.....	6.658,32		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak	49.226,85		
GASTUAK, GUZTIRA	118.980,88	BALIABIDEAK GUZTIRA	123.328,94
Diruzaintza	4.348,06		
GUZTIRA	123.328,94	GUZTIRA	123.328,94



VI.5 ALDERDI POPULARRA

PP alderdiak hiru lurralde historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan, eta lurralde bakoitzeko kontabilitate bereizia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak.....	8.440,47	Dirulaguntzaren aurrerakina	29.453,55
Errentamenduak	7.176,80	Alderdiaren ekarpena	174.265,30
Profesional independenteen zerbitzuak	6.368,23		
Banku zerbitzuak eta antzekoak	2,10		
Publizitatea prentsa-irratian	65.295,28		
Kanpoko publizitatea	19.650,40		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	19.754,97		
Beste zerbitzu batzuk.....	77.030,60		
GASTUAK, GUZTIRA	203.718,85	BALIABIDEAK GUZTIRA	203.718,85

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	2.178,00	Dirulaguntzaren aurrerakina	10.694,47
Profesional independenteen zerbitzuak	14.276,81	Alderdiaren ekarpena	51.679,89
Banku zerbitzuak eta antzekoak	7,50		
Publizitatea prentsa-irratian	15.302,97		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	11.823,38		
Beste zerbitzu batzuk.....	12.735,70		
HAUTESKUNDE-GASTUAK GUZTIRA	56.324,36	BALIABIDEAK GUZTIRA	62.374,36
Gastu ez hauteskundeetakoak	6.050,00		
GASTUAK, GUZTIRA	62.374,36	BALIABIDEAK GUZTIRA	62.374,36

Sare sozialen kudeaketarako “Beste zerbitzu batzuetatik” 6.050 euro deskontatu dira, KtuE instrukzioaren arabera ez baitira HAOLoren 130. artikuluko kontzeptuetan sartzen.

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak	1.217,07	Dirulaguntzaren aurrerakina	4.775,86
Profesional independenteen zerbitzuak	6.534,00	Alderdiaren ekarpena	38.290,66
Banku zerbitzuak eta antzekoak	3,30		
Publizitatea prentsa-irratian	9.459,97		
Bestelako propaganda eta publizitatea.....	6.009,68		
Beste zerbitzu batzuk.....	19.842,50		
GASTUAK, GUZTIRA	43.066,52	BALIABIDEAK GUZTIRA	43.066,52



VI.6 VOX

2023ko urriaren 5ean (hauteskundeetako kontabilitatea aurkezteko epea 2023ko irailaren 30ean amaitzen zen, 2023ko apirilaren 6ko BOEn argitaratutako KtuE instrukzioaren arabera), VOX alderdiak idazki bat aurkeztu du, zeinaren bidez jakinarazten baita ez zela izan Batzar Nagusietarako kanpainarako berariazko gastu indibidualizagarririk, baizik eta gastuak osorik udal-hauteskundeetako kanpainaren kontura egin zirela.



ALEGAZIOAK

**** **Pertsona fisikoek eta juridikoen izenak eta identifikagarri gerta daitezkeen datuak ezabatu dira.**

2023ko maiatzaren 28an Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako egindako hauteskundeetan Euskal Herria Bildu Federazioko administratzaile nagusia den aldetik, Herri Kontuen Euskal Epaitegi horretan agertu da, eta zuzenbideari dagokionez, DIO:

2023ko azaroaren 2an, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko idazkari nagusiaren jakinarazpena jaso zuen. Horren bidez jakinarazten da Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 28ko Batzar Nagusietarako hauteskundeetako kontabilitatearen fiskalizazioaren emaitzak onartu dituela. Eta txostena behin betiko onartu aurretik eta Epaitegi hori eratzen duen Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, emaitza horiek bidaltzen dira egoki iritzitako agiri edo justifikazio guztiak aurkez edo alega ditzan 2023ko azaroaren 16an amaitzen den epe luzaezinean. Horretarako emandako epean honako hauek aurkeztu ditu, ALEGAZIOAK:

AURREKARIAK:

V.2 GASTUEN GEHIENEKOMUGA

VI.2 EUSKAL HERRIA BILDU

LEHENENGOA: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legearen 7.1 artikularekin bat etorritik, Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deialdia Ahaldun Nagusiak egingo du, hauteskunde horien data eta epeak udal hauteskundeetakoekin bat etorritik.

Horrela, Diputatu Nagusiaren apirilaren 3ko 76/2023 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deia egin zen (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2023ko apirilaren 4koa, 40 zbk.).

Diputatu Nagusiaren apirilaren 3ko 59/2023 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deia egin zen (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). 2023ko apirilaren 4koan, 66 zbk.).

Eta apirilaren 3ko 2/2023 Foru Dekretuaren bidez, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deia egin zen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2023ko apirilaren 4koan, 65 zbk.).

BIGARRENA: Eusko Legebiltzarraren martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzkoak, bere 11. artikuluan hauteskunde jarduerak sortzen dituzten gastuetarako dirulaguntzak arautzen ditu, lurralde historiko bakoitzeko aurrekontuen kargura. Finantzaketa publikoak bi kontzeptu biltzen ditu:



- a) Hautatutako Biltzarkide, Ahaldun edo Batzarkide-Ahaldun bakoitzeko, Legebiltzarrerako egindako hauteskundeetan legebiltzarkide-toki bakoitzagatik emandako dirulaguntzaren ehuneko berrogeikoa adinako jakineko diru-zenbatekoa.
- b) Hautagai-zerrenda bakoitzak ateratako boto bakoitzeko, udal-hauteskundeetarako jarritako diru zenbatekoa bera, hautagai-zerrendako bat gutxienez Kondaira-Lurraldean Biltzarkide, Ahaldun edo Biltzarkide-Ahaldunetarako hautatuta atera dedinaren baldintzapean.

Horrela, apirilaren 4ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 11/2023 Foru Dekretuaren bidez, 2023ko Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-taldeei dirulaguntzak aurreratzeko modua arautzen da (apirilaren 10eko ALHAO, 42. zk.).

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 28ko 32/2023 Foru Dekretuaren bidez, 2023ko maiatzaren 28ko Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle taldeei eragindako gastuetarako dirulaguntzak arautzen dira. (BAO, 66 zk., 2023ko apirilaren 4koa)

Apirilaren 19ko 753/2023 Foru Aginduaren bidez, 2023ko Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteei dirulaguntzak ematea arautu zen (GAO, 76. zk., 2023ko apirilaren 21ekoa).

Xedapen horietan guztietan 1. artikuluan, ezartzen da (Arabaren kasuan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legearen 11. artikulua aipatze hutsez), Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartzeagatik alderdi, federazio, koalizio eta hautesle-taldeei dagozkien hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzak emango dituztela. Dirulaguntza horiek, hala badagokio, honako hauek izango dira: ahaldun edo batzarkide bakoitzeko hamaika mila ehun eta hirurogeita hamabost euro eta hirurogeita hamasei zentimo (11.175,76 euro), eta hautagai-zerrendak lortutako boto bakoitzeko berrogeita hamalau zentimo (0,54 euro), betiere kide bat gutxienez hautatua izan bada.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legeak ez duenez gastu mugarik ezartzen, espero zitekeen foru xedapenetako batek ere muga hori ezartzea. Hala ere, xedapen horietako batek ere ez du gastu mugarik ezartzen.

HIRUGARRENA: 2023ko maiatzaren 28an Batzar Nagusietarako hauteskundeak egin ondoren, Euskal Herria Bildu Federazioak hauteskunde prozesu horiei dagozkien hauteskunde kontabilitateak aurkeztu ditu Herri Kontuen Euskal Epaitegian. Arabako lurralde historikoari dagokiona 2023ko irailaren 21ean, baita 2023ko irailaren 21ean ere Bizkaiko lurralde historikoari dagokiona eta, azkenik, Gipuzkoako lurralde historikoari dagokiona 2023ko irailaren 22an.



LAUGARRENA: Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak onartu egin ditu 2023ko maiatzaren 28ko Batzar Nagusietarako Hauteskundearen Kontabilitatearen fiskalizazioaren emaitzak, behin betiko onarpena eman aurretik, eta bertaratutako alderdiei helarazi die alegazioak egin ditzaten. Alegazio horietan honako ohar hauek jasotzen dira:

V.2 GASTUEN GEHIENEN MUGA

“Batzar Nagusietako Hauteskundearen Legeak ez du mugarik ezartzen hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi politikoek hauteskundeetan egin ditzaketen gastuei dagokienez.

Alabaina, HAOLOk 131. artikulua ezartzen du hauteskunde guztietan muga bat dagoela, eta muga bateratu bat bi hauteskunde edo gehiago batera egokituz gero.

131,1 artikulua ezartzen duen mugari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2007ko urriaren 25eko erabakiak agintzen du hauteskunde-gastuen muga bakarra eta bateratua dela hiru lurraldeetarako, hauteskunde-prozesuak duen batasun izaeraren ondorioz.

131.2 artikulua baterako mugari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2019ko otsailaren 18ko Jarraibideak agintzen du muga hau ez zaiela ezargarria lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeetara, modu bereizian arautuak baitaude eta organo ezberdinek fiskalizatzen baitituzte.

Aurrekoaren ondorioz eta HAOLoren 193.2 artikuluan agindutakoari jarraikiz, alderdi politikoek egin dezaketen gastua, 2023ko maiatzaren 28ko toki-hauteskundeetarako hauteskunde-jarduerek eragindako gastuetarako dirulaguntzen zenbatekoak finkatzen dituen Ogasun Ministerioaren apirilaren 4ko 329/2023 Aginduak eguneratutako zenbatekoen arabera, 0,11 eurokoa izango da biztanle bakoitzeko, gehi 150.301,11 euroren kopuru finko bat Lurralde Historikoko barrutietatik erdietan baino gehiagotan aurkeztuz gero; horretarako, onartutako azken errolda hartuko da kontuan, 2022ko urtarrilaren lekoa, alegia. Horrez gain, alderdi politikoek gehieneko muga horren % 20 baizik ez dezakete gastatu prentsa-irratietako publizitatean (58. artikulua).

Hauteskunde hauei aplikagarriak zaizkien mugak honako hauek dira: 693.802,47 euro guztizko gastuetarako, eta 138.760,50 euro prentsa-irratietarako.”

Federazio hau ez dator bat interpretazio horrekin, ez baitator bat zuzenbidearekin, eta honako hauetan oinarrituta, ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

LEHENENGOA: Egia da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeetara buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legeak ez duela mugarik ezartzen hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi politikoek hauteskundeetan egin beharreko gastuetarako.



Baina ez da egia Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 131.1 artikulua adierazten duenik Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak "hauteskunde guztietan muga bat dagoela" adieraztean lortu nahi duena; izan ere, xedapen horren hitzez hitzeko edukia honako hau da:

"ezein alderdik, federaziok, koalizioak edo elkartek ezin du egin lege honetako xedapen berezietan ezarritako mugak gainditzen dituen hauteskunde-gasturik; gastu horiek euro konstanteetan adierazitakotzat hartuko dira beti."

Beraz, ez da egia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak adierazten duena: "hauteskunde guztietan muga bat dagoela", HAOLoren xedapen berezietan araututako hauteskunde prozesuetara mugatzen baitu prozesuetara jotzen baitu, eta hauen artean ez daude hauteskunde autonomikoak ez eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietara direnak ere ez.

Lege horren xedapen berezietan ezarritako mugak honako hauek dira:

"2. Gorte Nagusietarako edo honen ganberetako edozeinetarako hauteskundeetarako, hauteskunde-gastuen muga izango da alderdi, federazio, koalizio edo elkarre bakoitzak hautagai-zerrendak aurkezten dituen barrutietako zuzenbidezko biztanleriari dagokion biztanle-kopurua bider 0,37 euro." (175.2 artikulua)

"2. Udal-hauteskundeetarako, hauteskunde-gastuen muga izango da alderdi, federazio, koalizio edo talde bakoitzak hautagai-zerrendak aurkezten dituen barrutietako zuzenbidezko udalerriari dagokien biztanle-kopurua bider 0,11 euro. Probintzia bakoitzeko, hauteskundeetara gutxienez udalerrien 100eko 50ean aurkezten direnek beste 150.301,11 euro gastatu ahal izango dituzte baldintza hori betetzen duten probintzia bakoitzeko." (193.2 artikulua)

"2. Europako Parlamenturako hauteskundeetarako, hauteskunde-gastuen muga izango da boto-txartelak zabaltzea eskatu den hauteskunde-ataletako zuzenbidezko biztanleriari dagokion biztanle-kopurua bider 0,19 euro eginda ateratzen dena." (227.2 artikulua)

Ez du inola ere mugarik ezartzen autonomia erkidegoetako hauteskunde prozesuetarako, ezta, jakina, Batzar Nagusietarako ere.

Hala ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako interpretazioa zuzena balitz, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 147.2 artikulua, Hauteskundeei buruzko Lege Organiko Orokorrean adierazitakoa baino muga handiagoa ezartzean, honen kontrakoa izango litzateke, eta azken horren 131.1 artikulua urratuko luke:

"2. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, hauteskunde-gastutarako muga alderdi, baterakunde, bazkun edo batasun bakoitzak hautagai-zerrendak aurkezten dituen barrutietako legezko biztanlegoari dagozkion biztanleen kopurua 0,42 euroz biderkatuz ateratzen dena izango da. Biderketa horretatik ateratzen denari haien hautagai-zerrendak aurkezten dituzten barrutietako bakoitzeko 202.400 euro gehitu ahal izango zaizkio."



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hala ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako interpretazioa ez da zuzena, Hauteskunde Lege Organiko Orokorraren 131.1 artikulua ez baitu oinarritzko izaerarik, ez baitago jasota Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoak jasotzen dituen eta oinarritzko izaera ematen dien manuen artean: *"Konstituzioak Estatuari erreserbatzen dizkion eskumenak aplikatuz, autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeei ere aplikatzen zaizkie lege organiko honen I. tituluko artikulua hauek: 1etik 42ra; 44 bis; 45; 46.1, 2, 4, 5, 6 eta 8; 47.4; 49; 50.1, 2 eta 3; 51.2 eta 3; 52; 53; 54; 58; 59; 60; 61; 62; 63; 65; 66; 69; 70.1 eta 3; 72; 73; 74; 75; 85; 86.1; 87.2; 90; 91; 92; 93; 94; 95.3; 96; 103.2; 108.2 eta 8; 109 a 119; 125 a 130; 131.2; 132; 135 a 152."*

Bestalde, xedapen gehigarri horren hirugarren atalak honako hau xedatzen du:

"Lege honen I. tituluko gainerako artikulua autonomia erkidegoek onartzen duten legeriaren osagarri izango dira, eta beren legebiltzarretarako hauteskundeetan aplikatuko dira, baldin eta lege horiek ez badituzte haiei buruzko legeak egiten." Eta argi dago Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumeneko hauteskundeetako gastu mugari buruzko legeak egin dituela, adierazi den bezala, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 147.2 artikuluan.

Horrela, eta Lehen Xedapen Gehigarri horren hirugarren paragrafoak diotenaren arabera, 193.2 artikulua ez luke ordezkotza izaerarik izango, I. Titulutik kanpo baitago, eta ez du oinarritzko izaerarik.

BIGARRENA: Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikulua xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela, besteak beste, *"Euskal Biltzarrea, Junta Nagusiak eta Diputazio Foralekin zerikusirik duten hauteskundeetarako barne-legegintza, Estatuto honetan seinalatzen denari jarraituz eta 37. artikuluan erabakitzen denaren arauera, Herrialde Historikoei dagozkien ahalmenei kalte egiteke."*

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legearen zioen azalpenak berak honako hau adierazten du:

"Autonomia-Elkarteari Batzar Nagusietarako hauteskundeekiko legegintzarako bakarreango agintepidea ematen dion Autonomia-Estatutoaren 10.3 atalaren arauera, Eusko Legebiltzarrari dagokio, euskal gizartearen demokraziazko bizitza gero eta erakunde demokraziazkoagoak, zuzenagoak eta orainaldiagoak antolatuz gara-arazteko bere eginkizun nagusiari dagokionez hauteskunde-erapidetza araupetzea."

Hori dela eta, logikaz eta eskumen eskusibo horretan eta bere gida lanean oinarrituta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aplikatu behar dira, osagarri gisa.

Hala adierazi du Hauteskunde Batzorde Zentralaren doktrinak, besteak beste, honako ebazpen hauetan:



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

"HBZ saioa: 2007/03/22

Zenb. Erabakia: 50/2007

Zenb. Espedientea: 282/67

Egilea:

Alderdi Popularraren ordezkari nagusia

Xedea:

Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako hautagai-zerrendetan ordezekoak sartzeko derrigortasunari buruzko kontsulta.

Akordioa:

Autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeetan aurkeztutako hautagai zerrendetan ordezekoak sartzeko betebeharra autonomia erkidegoko legeriak hala ezartzen duenaren arabera izango da. Hori egin ezean, HAOL legearen lehen xedapen gehigarriaren 3. paragrafoan araututakoaren arabera, lege organiko horren 46.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, osagarri gisa.

